

# PSIKOLGIA

Jokin OROZKO ETXEBERRIA

IRAKASKUNTZA ELEANITZA  
AURRERA ERAMATEKO  
JARRAIBIDEAK LEHEN  
HEZKUNTZAN

TFG/*GBL* 2013

**upna**  
Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación Primaria  
Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua



**Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua**  
**Grado en Maestro en Educación Primaria**

Gradu Bukaerako Lana  
Trabajo Fin de Grado

**IRAKASKUNTZA ELEANITZA AURRERA**  
**ERAMATEKO JARRAIBIDEAK LEHEN**  
**HEZKUNTZAN**

Jokin OROZKO ETXEBERRIA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Estudiante / Ikaslea**

Jokin Orozko Etxeberria

**Título / Izenburua**

Irakaskuntza Eleanitza Aurrera eramateko jarraibideak Lehen Hezkuntzan

**Grado / Gradu**

Grado en Maestro en Educación Primaria / Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

**Centro / Ikastegia**

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales / Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea  
Universidad Pública de Navarra / Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**Director-a / Zuzendaria**

Pablo Sotés Ruiz

**Departamento / Saila**

Psikologia eta Pedagogia Saila/ Departamento de Psicología y Pedagogía

**Curso académico / Ikasturte akademikoa**

2012/2013

**Semestre / Seihilekoa**

Primavera / Udaberrikoa

## HITZAURREA

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege-Dekretuak, eta 861/2010 Errege-Dekretuak aldatuta, III Kapituluaren ageri den legez, "irakaskuntza hauek Gradu Bukaerako Laneko lanketa eta defentsarekin amaituko direla ezartzen du, [...] Gradu Bukaerako Lanak izango ditu 6 eta 30 kreditu bitartean, ikasketa-planeko azkeneko fasean egin behar izango du eta tituluekin lotutako konpetentzien ebaluaziora orientatuta egon".

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Lehen Hezkuntzako Irakasle Graduak 12 ECTS-eko luzapena du, ANECA-k egiaztatutako titulu memoriaren arabera. Titulua abenduaren 27ko ECI/3857/2007 legearen bidez baldintzatuta dago, Lehen Hezkuntzako Irakasle bizibidearen ariketarako prestatzen dituzten unibertsitate-titulu ofizialen egiaztatzerako ezartzen dituen Aginduak zuzenduta. Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2013ko martxoaren 12an onartu bezala, Gradu Bukaerako Lanak izaera subsidiarioarekin aplikatuta izango da.

Lehen Hezkuntzako Irakasle ikasketa plan guztiak, ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, egituratzen dira hiru modulu handitan: oinarrizko heziketakoa, eduki sozio-psikopedagogikoak garatzen direlarik; beste bat, didaktiko eta diziplinazkoa, diziplinazko edukiak eta bere didaktika jasotzen dituen; eta azkenik, Practicum, Graduako ikasleek eskola-praktiketan lortu behar izango dituzten konpetentziak deskribatzen diren atala.

Azken modulu honetan, kokatzen da Gradu Bukaerako Lanean zehar lortutako ikaspen guztien heziketaren isla. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak beharrezko 240 ECTS-en banaketa Graduaren lorpenerako zehazten ez duenez gero, unibertsitateek hautazko irakasgaiak zehazteko ahalmena dute.

Horrela, ECI/3857/2007 Aginduan aipatzen den bezala, Gradu Bukaerako Lanean ikasleak oinarrizko heziketa, didaktiko-diziplinar eta praktikum moduluei buruzko konpetentziak frogatzen dituen beharrezko baldintzak betetzen dituela ziurtatzen du, Lehen Hezkuntzako Irakasle bizibidearen ariketarako prestatzen dituzten unibertsitate-titulu ofizial guztietarako eskatzen direnak.

Lan honetan, oinarrizko heziketa moduluan oinarrizten da eduki sozio-psikopedagogikoak ezartzean. Honek lanaren irakaskuntza prozesua finkatzen laguntzen du; izan ere, ikasleriaren testuinguru ezberdinak, garapen sozio-ebolutiboa eta hezkuntza eredia kontutan hartzen dituelako. Hori dela eta, ikaslearen garapen prozesua aintzat hartzen da irakaskuntza prozesuak aurrera eramateko eta ikaskuntza eraginkorra bermatu nahian. Irakaskuntza eleanitza garatzeko eta hortaz, ikasleria gaitasunetan hezteko, marko psikopedagogiko zein metodologikoak zehazten dira.

Modulu didaktiko eta diziplinarrari dagokionez, eta oinarrizko heziketa moduluari jarraituz, aurrera eramandako unitate didaktikoetan agertzen diren eduki diziplinar eta didaktikoak zehazten dira. Horretarako, curriculumean aipatzen diren gaitasun eta helburu didaktikoei erreferentzia egiten zaie, baita landuko diren gaitasun metadiziplinar zein zeharkakoei ere. Unitate bakoitzean landu beharreko helburuez aparte, hauek garatzeko estrategiak ere agertzen dira, ebaluaziorako irizpideei eraginez. Hauetaz aparte, irakaskuntza prozesuan ezinbestekoak diren elkarrekintza eta jarrerak ere agertzen direla, ikasleriaren gaitasun mota guztiak lantzeko asmoz.

Halaber, praktikum modulua lan osoan zehar garatzen da. Izan ere, praktikum garaia eta gero eskuratutako gaitasunak azaltzen dira, lanari izaera praktikoa eta egitiaz emanaz. Praktikumak irakasle lanaren baitan garatu beharreko strategiak eta formulak ematea ahalbidetu du, lana garatzean kontutan izan direnak. Honetaz aparte, lana egituratzerako orduan, Praktikumean ikusitako metodologiak ere aintzat hartu dira, lana testuinguru errealean kokatzearen; justifikapenean, unitateen egituraketan eta ondorioetan azaltzen den legez.

Bukatzeko, hautazko moduluan aipatu beharra dago, hizkuntza gaitasuna garatzearen Frantsesa (B2) eta Ingelera (C1) hizkuntzak kurtsatu ditudala NUP-eko Hizkuntzen Goi Mailako Ikastegian. Honetaz aparte, hirugarren maila Australian egiteko aukera ere izan nuen; beraz, honek guztiak nire hizkuntza eta komunikazio gaitasunak garatzeko abagune izan da, lan honetan azaltzen den bezala.

Bestalde, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du Gradua bukatzerakoan, ikasleek C1 maila eskuratu behar dutela gaitasunetan. Horregatik, hizkuntza-gaitasun hau frogatzeko, idazten dira hizkuntza honetan "Justifikapena (Justificación)" atala eta "Propuesta

Didáctica Lengua Castellana” garatu dira, baita hurrengo atalean agertzen den arauko laburpenean ere.

Gainera, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du Gradua bukatzean, ikasle elebidunek komunitatearen hizkuntza koofizialean C1 maila lortu behar dutela; gurean, euskal hizkuntza. Horregatik, hizkuntza-gaitasun hau frogatzeko, sarrera hau eta lanaren azkeneko ondorioak euskaraz ere idazten dira.





## Laburpena

Gaurko gizartearen izaera eleaniztun eta kulturantzaren egiaztatetik abiatuta, Gradu Bukaerako Lan honek planteatzen du eskolak ezinbesteko aldaketa antolatzaile eta metodologikoak sar ditzala ikasle eleaniztunen behar komunikatiboei erantzuna emateko. Horretarako, proiektu metodoa proposatzen da; Hizkuntzen Tratamendu Integratua proposamen metodologikoaren bidez, hizkuntza ezberdinak batera existitzen diren ikastaldi-egoerei aplikatutako irakaskuntza ikuspegi komunikatiboan oinarritzen baita. Kontzeptu honek, eskolako hizkuntza desberdinen irakasleen arteko koordinazioa indartzen du, hauek partekatzen dituzten elementuetatik partituz. Hori dela eta, esku-hartze indibidualen eraginkortasuna bermatzen da, kompetentzien garapena eta beraz, ikastunen kompetentzia eleaniztuna errazten ditu. Azkenik, lan honetako praktikotasuna frogatzeko, hiru proposamen didaktiko garatzen dira Bertan norbanako, taldeko zein kompetentzia akademikoak aintzat hartu, testuinguru errealean eta esanguratsuetan hizkuntzen ikaskuntza oinarri izango duena.

*Giltza-hitzak:* eleaniztasuna; hezkuntza eleanitza; kompetentzia komunikatiboa; gaitasunen hezkuntza; hizkuntzen tratamendu integratua; proiektu metodoa.

## Resumen

A partir de la constatación del carácter multilingüe y multicultural de la sociedad actual, el Trabajo de Fin de Grado plantea la necesidad de que la escuela introduzca cambios organizativos y metodológicos imprescindibles para dar respuesta a las necesidades comunicativas del alumnado plurilingüe. Para ello, se propone el método por proyectos, centrándose en la propuesta metodológica del Tratamiento Integrado de las lenguas, basado en el enfoque comunicativo de la enseñanza-aprendizaje de las lenguas aplicada a las situaciones de aprendizaje en las que coexisten lenguas diferentes. Este concepto refuerza la coordinación entre el profesorado de las distintas lenguas de la escuela a partir de los elementos que estas comparten; reforzando así la eficacia de las intervenciones individuales, facilitando el desarrollo de competencias y por lo tanto, la competencia plurilingüe de los/as aprendices. Finalmente, para demostrar la practicidad de este trabajo, se plantean tres propuestas didácticas que

desarrollan competencias individuales, académicas y grupales, teniendo como base el aprendizaje en un contexto real de las lenguas.

*Palabras clave:* multilingüismo; educación plurilingüe; competencia comunicativa; educación por competencias; tratamiento integrado de las lenguas; método por proyectos.

## **Abstract**

From the verification of a multilingual and multicultural society, this Final Grade Essay raises the need to transform schools' organizational and methodological concepts, necessary to answer the communication needs of multilingual students. To this end, it is proposed the project method; focusing on the methodology of Integrated Treatment of languages, which is based on the communicative approach of applied language teaching and learning in order to engage situations in which different languages coexist. This concept strengthens coordination among teachers of different languages within the school context making links between different contents, and thereby, increasing the effectiveness of individual interventions, facilitating the development of skills and therefore multilingual competence of apprentices. Finally, to demonstrate the practicality of this essay, there are three educational proposals that develop individual, academic and group skills, based on language learning in real and useful contexts.

*Keywords:* multilingualism; multilingual education; communicative competence; integrated language treatment; project method.





## AURKIBIDEA

### Hitzaurrea

<b>1. Justifikapena</b>	<b>1</b>
<b>1. Justificación</b>	<b>8</b>
<b>2. Marko Teorikoa</b>	<b>17</b>
2.1. Marko Normatiboa	17
2.1.1. LOE	17
2.1.2. LOMCE	18
2.1.3. Nafarroako Hezkuntzarako Foru Dekretua	19
2.2. Marko Psikopedagogikoa	20
2.2.1. Hizkuntzaren Antzematea	20
2.2.1.1. Ulermena	21
2.2.1.2. Adierazpena	22
2.2.1.3. Hirugarren Hizkuntza Antzematea	23
2.3. Marko Metodologikoa	25
2.3.1. Erabilpen egoerak eta hizkuntza ikaskuntzarako erreferenteen aukeraketa	26
2.3.1.1. Eremu kurrikular guztietara erator daitezkeen erreferenteak	26
2.3.1.2. Ikaskuntza marko teorikoarekiko koherente eta egoki diren erreferenteak	27
2.3.1.3. Pertsonaren ekintza guztietara erator daitezkeen egoera esanguratsuak eta adierazgarriak hautatu	27
2.3.1.4. Hezkuntza etapa bakoitzaren garapen ebolutiboarekin bat egiten duen egoera	27
2.3.2. Konpetentzia linguistiko-komunikatibo estatusari erantzuten dioten erreferenteak	28
2.3.2.1. Eremu ez-linguistikoetan gauzatzen diren hizkuntza egoerak	28
2.3.2.2. Hizkuntza eremuan erabilera gauzatzeko egoerak	28
2.3.3. Gaitasun metadiziplinarren integrazioa hizkuntza eta literatura alorrean	29
2.3.4. Proiektu metodoa	31
<b>3. Proposamen kurrikular eleanitza</b>	<b>37</b>
3.1. English Didactic Unit	39
3.1.1. Unit of work	41
3.2. Unitatearen Ikuspegi Orokorra : Euskara eta Literaturua	51
3.2.1. Zer da IRT?	54
3.2.2. Ikerketa Lan Independentea: Prozedura	57
3.2.3. Ikasleen ebaluaziorako feedback	64
3.3. Propuesta Didáctica Lengua Castellana	67
3.3.1. Introducción	67
3.3.2. Descripción de actividades	71
3.3.3. Orientaciones para la intervención pedagógica	75
3.3.4. Orientaciones para la evaluación	75

### Ondorioak

#### Erreferentziak

#### Eranskinak

##### A. Eranskina I

##### A. Eranskina II

##### A. Eranskina III









## 1. JUSTIFIKAPENA

Egungo gizartearen izaera eleanitza eta kulturانيتza aintzat hartuz, honek suposatzen dituen erronka berriak kontutan hartzea ere suposatzen du. Mundu globalizatu hau, ezagutzaren gizartean, informazio zein komunikaziozko teknologietan eta pertsonen mugikortasunean oinarritzen da. Beraz, eragile sozialak garen heinean, gaitasun eleanitza eta kulturانيتza antzematea ezinbestekoa dugu. Errealitate honek, hortaz, gaitasun eleanitza eta kulturانيتza garatzea exijitzen du. Mundu globalizatuan, pertsonen arteko komunikazioa eta ikaskuntza ahalbidetzen den ahala, hizkuntza gutxituen nahiz hedatuen ondasun kulturalaren aintzatespena jorratzen delako.

*“Eleanitzasuna bizitzeko era bat da, ebatzi beharreko arazo bat baino”* UNESCO (2003, 17).<sup>1</sup>

Ikastetxeek norbanakoen zein talde sozialen behar komunikatiboak erantzuna eman behar die. Hizkuntza ezberdinek baterako existentzia dute gizartean (hizkuntza ofizialak, koofizialak, atzerrikoak), eta testuinguru sozialetan normala denez, hortaz ikastetxeetan ere bada. Hori dela eta, ikastetxeen funtzioa batetik, hizkuntza hauen ikaskuntzarako zein onespenerako garapen baikorra lortzea da; eta bestetik, mundu globalizatuan atzerriko hizkuntza bat edo gehiago ezagutzearen beharra, elkar kontakturako erabiliko dena (Ruiz Bikandi, 2012).

Hezkuntza eleanitzaren arrakasta, beste hizkuntzen baieztapenean eta kultura ezberdinak behatzean datza. Hezkuntza mota hau, hain zuzen, hizkuntzak irakastea baino haratago doa. alde batetik, hizkuntza kurrikular guztiek helburu bera konpartitzea, gaitasun komunikatiboaren garapena, alegia; eta bestetik, hizkuntza ezberdinen erabilera ikaskuntza berriak eskuratzeko. Honenbestez, ikastetxeek, irakaskuntza-hizkuntza ezberdinetan eskaini behar dute, eta ez soilik hizkuntza ezberdinen irakaskuntza.

Europako Kontseiluak, gaitasun eleanitza eta kulturانيتza definitzen du *“hizkuntzak komunikaziorako erabiltzeko eta kulturarteko ekintzetan parte hartzeko eragile soziala*

---

<sup>1</sup> *El plurilingüismo es más un estilo de vida que un problema que hay que resolver.*

*den heinean, hizkuntza ezberdinetan kompetentzia eta bizipen aldagarria*<sup>2</sup> bezala. (CEFR, 2001). Hezkuntza eleanitzaren xedea, hizkuntza ezberdinen trebezi eta erreperitorio linguistikoen garapena lortzea da. Eleaniztasuna, bitzta osoan zehar sendotzen den prozesua da, hizkuntza berriak txertatuz bakoitzaren premiak kontutan izanik.

Eleaniztasuna pertsona guztiek duten gaitasuna da. Hezkuntza sistemaren betebeharren artean, ikasleriaren hizkuntza ikaspenerako ahalmenaz kontziente bilakatzea da, aukera eta esperientzi eraginkorrak ahalbidetzen direlarik. Horretarako, Europako Kontseiluak *“Hezkuntzan hizkuntza politikak formulatzeko gida”* aurkezten du, non ondorengo uste sendoak esposatzen dituen eleaniztasunaren inguruan:

- Hitzun guztiak eleaniztun potentzialak dira, beste hizkuntzak antzemateko gaitasuna edota aniztasun linguistikoa garapenean daukatelarik.
- Kompetentzia eleanitzak ez du zertan antzeko kompetentziarik garatu behar hizkuntza ezberdinetan. Hitzun elebidun, hirueledun edo eleanitz orekatuak ez dira ohikoak; maiz gradu ezberdinetako erreperitorioa nagusitzen baita. Hezkuntza sistemek estandar errealistak plazaratu behar dituzte eta *“jatorrizko hitzuna”*-ren ideia ahaztu.
- Gaitasun eleanitzak alor ezberdinetan erabiltzen diren baliabide komunikatiboak osatzen ditu: irakaskuntza, erlazio interpertsonalak, komunikabideak, erlazio instituzionalak, espresio artistikoan...
- Erreperitorio linguistikoa norberaren premia komunikatiboak baldintzatuta aldatzen da.
- Gaitasun eleanitza zehazteko, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua (HEEEB) jarraitzen da, horrela definitzen delarik *“ez da gaitasun ezberdinen gainezartzea edo justaposizioa, baizik eta hizkuntza guztietara eratortzen den zeharkako gaitasuna”*. Izan ere, HEEEB-ak, atzerriko hizkuntza baten ikasleak ahoz eta idatziz duen ulermen eta adierazpen maila neurtzeko balioak espezifikatzen baititu. Maila bakoitzeko hitzunek nolako komunikatzeko

---

<sup>2</sup> In an intercultural approach, it is a central objective of language education to promote the favourable development of the learner's whole personality and sense of identity in response to the enriching experience of otherness in language and culture.

gaitasuna izan beharko luketen ahoz zein idatziz, eta nolako ulermen maila izan beharko luketen bai entzumenean bai irakurmenean.

- Era berean, eleaniztasunak osagai interkulturala portatzen du, kulturen arteko irakaskuntza kontaktuan jartzen duelako.

Gainera, ekintza esperimentaletan irakaskuntza elebidunean edota hizkuntzen murgiltzean jasotako onurak eratoritzen dira:

- Atzerriko hizkuntzarekiko esposizio gehigarria suposatzen du, haren garrantzia input doitzaille eta ulergarria bezala frogatuta dagoelarik. (Krashner, 1981).
- Hizkuntza, komunikazioa gaitasunaren adierazpen globalizat ulertzen da. Hizkuntza ikaskuntza eskuratzeko tresna gisa erabiltzean, kontenplatu gabeko kompetentziak garatzen direlako (Canale eta Swan, 1980; Bachman, 1990; Cummins, 1999; Vollmer, 2006).
- Elebitasunak zein eleaniztasunak hiztunaren kontzientzia metalinguistikoa areagotzen du, hizkuntzen funtzionamenduaren jabetzea ahalbidetuz (Baker 1993; Cenoz eta Genesee, 1998; Huifesen, 2000; Cenoz eta Jessner, 2000).
- Eleaniztasunak, ikaskuntza egoera egokietan, gaitasun kognitiboaren indartzailean bilakatzen da (Cummins, 2001; Vollmer, 2006).
- Konpetentzia komunen azpian denak, errepertorio linguistikoen barneratzea laguntzen du, ezagutzen diren hizkuntzen arteko transferentzia gauzatzuz (Cummins, 1998).
- Jarrera baikorren eta motibagarrien areagotzeak, ikaskuntza prozesua gauzatzea ahalbidetzen du (Baker, 1993; Dörnyei, 2004).
- Ikaskuntzarako estrategien garapena (Oxford, 1990; Chamot, 1998).

Europako Kontseiluaren hezkuntza dokumentuari jarraituz (1995) *“El libro blanco. Enseñanza y aprendizaje. Hacia una sociedad del aprendizaje”*, hizkuntza irakaskuntzaren lehentasunezko helburua hiru hizkuntza komunitarioen menderatzea da: ama hizkuntza gehi beste bi (AH + 2). Hau eskuratzeko, alor edo materia kurrikular ezberdinen irakaskuntza, eskolaren errealitatea osatzen duten hizkuntzen bidez garatu behar da. Horrela, eleaniztasuna garatzen den bitartean, hurrengo helburuak betetzen direla:

- Hizkuntzen ikaskuntza sustatzea eta elkar ulermenerako erabilera ikaskuntza eraginkorra gauzatzeko.
- Proposamen didaktiko integratzaile eta globalak aurrera eramatea, zatiketa kurrikularra gainditzeko hizkuntza eta irakasgaien arteko lotura jorratzeko.
- Ikastetxeen autonomia bultzatzea, haien errealitate linguistiko eta soziokulturalaren interpretazioaren bidez, asmo handiko proposamen dinamikoak sustatzeko.
- Irakasleria inplikatzeko hizkuntza komunikazioa gerta dadin.
- Ikasleriaren motibazioa haztea hizkuntzen ikaskuntzarako gakoa da-eta.

Europar Batasunak gizarte eleanitzaren aldeko apustu sutsua egiten du, Europako Batzordeak argi uzten duenez (2005a: 2) *“Aniztasuna da Europar Batasuna osatzen duena; ez da hizkuntza eta kulturak desegiten diren tokia, baizik eta aniztasuna ospatzen duen etxea; non hizkuntzak aberastasun iturriak diren eta zubi bat eraikitzen dutenak elkartasunera, baita elkar ulermenera ere”*.<sup>3</sup>

Europako Kontseiluari jarraituz (2005a: 3), eleaniztasunak onura ezberdinak osatzen ditu. Norbanako mailan, gaitasun kognitiboak garatzen ditu, baita lehenengo hizkuntza-gaitasunak ere<sup>4</sup>. Europako Kontseiluaren helburua, eleaniztasuna hedatzea da; horretarako, European Centre for Modern Languages (<http://www.ecml.at>), eta European Language Portfolio (ELP <http://www.coe.int/portfolio>) tresna ezberdinak bultzatzen ditu; hizkuntzen ikaskuntza esperientziaren dokumentazioa biltzen baita.

Hau guztia betetzeko, XXI. mendearen lehen hamarkada hauetan, heziketa-lana tokian tokiko eta garaian garaiko testuinguruan ongi kokatu nahi duen eskolak bere planteamenduak eguneratu behar ditu, gizartean gertatzen ari diren aldaketa sakonei era eraginkorrean erantzun nahi badie.

Aldaketa horien artean, aurreko paragrafoetan aipatu bezala, hizkuntzarekin zerikusia duten prozesuek berebiziko garrantzia hartzen dute, bai Europar Batasunean, bai eta eskoletan zein hezkuntza proiektuetan ere. Batetik, etorkizuneko ikasleak

---

<sup>3</sup> “It is this diversity that makes the European Union what it is: not a “melting pot” in which differences are rendered down, but a common home in which diversity is celebrated, and where our many mother tongues are a source of wealth and a bridge to greater solidarity and mutual understanding”.

<sup>4</sup> “Multilingualism has advantages in many different ways. At the individual level, it can improve individual cognitive skills and develop the first language skills.

globalizazioaren gizarte eleaniztunean bizitzeko prestatu behar dira eta eleaniztasun hori, gure kasuan, euskaran eta euskalduntasunean ardaztutako hezkuntza eleaniztunerako eredua garatu behar dugu.

Bestetik, etorkizuneko gizarte horri hobeki erantzuteko asmoz, hezkuntza-kompetentzietan oinarritzen den hezkuntza-eredua garatzea ezinbestekoa da. Hezkuntza-eredu honetan, Hizkuntza prozesu-giltzarri bilakatu da; “Komunikatzen ikasi” kompetenziaren atal zabal bat hartzeaz gain, gainerako hezkuntza-kompetentziak garatzeko tresna garrantzitsuenetako bat da-eta.

Ezagutzaren eta globalizazioaren gizarteak dituen eskakizunei erantzuteko hezkuntza eredu berri bat garatzearen beharra dago, pertsona bere dimentsio guztietan (gizabanakoa, gizartekidea eta izadi-kidea) eraginkortasunez trebatuko duena. Hezkuntza eredu berri horren xedea izango da pertsonak gizartean partaidetza aktiboa edukitzeko eta bizitzako beharren aurrean era eraginkorrean ekiteko beharrezkoak diren kompetentziak gara ditzaten lortzea.

Azken batean, pertsona kompetenteak (hots, egoera eta testuinguru zehatz batean eraginkortasunez jarduteko gai diren pertsonak) hezteak izango da helburua, eta horretarako beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak era egokian hautatu eta erabili beharko ditu eskolak.

Kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegi berriaren ondorioz, hizkuntzek inoiz baino garrantzi handiagoa dute eskolan, hizkuntza baita, azken batean, giza garapenerako tresna nagusia, eremu guztietan eta gure egiteko guztietan erabiltzen dugun bitartekoa. Hezkuntzak, beraz, oraingo zein etorkizunetako egoera pertsonalari, akademikoari eta profesionalari begira aurreikus daitezkeen hizkuntza premiei erantzun beharko die.

Kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaren baitan, hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzaren xedea honakoa izango da: ikasleen komunikazio-kompetentzia garatzea, hizkuntza erabil dezaten bizitzako egoera eta behar guztietarako tresna eragingarri gisa (Garagorri, 2004).

Horrenbestez, hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzak eskolako eremu guztiek partekatutako prozesua izan beharko du; izan ere, eskola giroan (gela barruan, gelatik kanpo, komunitatean...) sortzen den komunikazio egoera bakoitzak bere ekarpena

egingo dio ikaslearen komunikazio-kompetentzia orokorrari eta egoera guztietan eragin beharko da hura garatu ahal izateko. Bestela esanda, eremu horietako bakoitzean sortzen den komunikazio-egoera bakoitzak bere ezaugarri linguistikoak izango ditu: batzuk formalak izango dira eta hizkuntza erregistro formalaren erabilera eskatuko dute; beste batzuk, berriz, ez-formalagoak izango dira eta erregistro ez-formalaren erabilera eskatuko dute.

Hala izanik, eskolaren erronka izango da bere inguruan gertatzen diren komunikazio egoerak identifikatzea, eta horiek hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzarako baliatu ahal izateko bidea egitea. Bide horretan garrantzi handikoak izango dira hainbat urrats; besteak beste, irakaskuntzarako metodologiak eguneratzea eta gelaz kanpo ekintzak hizkuntzaren ikuspegitik berraztertzea. Horrela, ikasleek ahalik eta egoera gehienetan aritzeko komunikazio-kompetentzia garatu ahal izango dute.

Honek guztiak, *Hizkuntza Proiektuaren* beharra azpimarratzen du.

Orokorrean, beraz, hizkuntzaren trataera dela-eta euskal eskolak bere gain dituen erronka handiak dira: XXI. mendeko gizarte berriari erantzunez euskarari eta euskal kulturari erantzun osoa ematea, inguruko beste bi edo hiru hizkuntza indartsuen irakaskuntza duina ziurtatzea, eta azkenik, jatorri ezberdineko ikasleen kultur eta hizkuntza ezaugarriari trataera egokia ematea.

Erronka horiei aurre egiteko, eskolak bere lan-esparruak eta funtzioak berrikusi eta marko berri bat eraiki beharko du. Marko horrek eskola-bizitzako komunikazio-esparru guztiak hartu beharko ditu, bai eta esparru horietako eragile guztien inplikazioa eta lankidetzaren bultzatu ere. Besteak beste, honako hiru lan-gai hauei erantzun beharko die markoak:

- Egoera soziolinguistikoa eta hizkuntzekiko helburuak kontuan hartuz, eskolak hizkuntza guztien plangintza eraginkorra egin beharko du; era berean, haien ikaskuntza-irakaskuntzaren lanketa bateratua eta koherentea ziurtatu beharko da. Horretarako, eskolaren barruan hizkuntza bakoitzak izango duen funtzioa eta hartuko dituen eremuak definitu beharko dira; ondorioz, bakoitzari eskainiko zaion denbora eta irakaste-bideak zehaztu beharko dira.
- Eskolaren baitako komunikazio-egoera askotarikoak identifikatuz (eremu pedagogikoan nahiz instituzionalean), haien ezaugarriak aztertuz, eta hezkuntza

komunitate osoaren partaidetza bilatuz, estrategia zehatzak definitu beharko dira egoera horiek ustiatzeko.

- Harreman estuak eta eraginkorrak garatu behar ditu inguruan duen gizartearekin, horretarako, plangintza sistematiko eta koherenteak zehaztuz.

Hizkuntza Proiektua izango da eskolak ezinbestean beharrezkoa duen marko zabal eta alde askotariko hori. Lan-tresna integrala izan beharko du ikastetxearen komunikazio-testuinguru osoan eragingo duena. Bestela esanda, Hizkuntza Proiektua ikastetxean lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak biltzen dituen eta haien trataerari koherentzia ematen dion egitasmoa izango da.





## 1. JUSTIFICACIÓN

Teniendo en cuenta el carácter multilingüe y multicultural de la sociedad actual, la necesidad de que la escuela introduzca cambios organizativos y metodológicos es imprescindible para dar respuesta a las necesidades comunicativas del alumnado plurilingüe. La realidad multilingüe exige hoy un enfoque de la enseñanza que favorezca el desarrollo de la competencia plurilingüe y pluricultural de las personas y facilite la comunicación en un mundo globalizado en el que, a veces, la fuerza de las lenguas usadas en los centros de poder y las actitudes hacia otras lenguas que dicho uso genera arrasan la riqueza cultural que representan las minorizadas.

*“El plurilingüismo es más un estilo de vida que un problema que hay que resolver”.*  
UNESCO (2003, 17).

Los centros educativos deben dar respuesta a las necesidades comunicativas de los individuos y de los grupos sociales. La coexistencia de varias lenguas diferentes, no solo en cuanto a sus características sino también en lo referente a su estatus (lenguas oficiales, cooficiales, extranjeras), es normal en los contextos sociales y, por ende, en los centros escolares. Por lo tanto, la función de las escuelas, es lograr un desarrollo y aprobación positiva del aprendizaje de idiomas, y por otro lado, en un mundo globalizado la necesidad de conocer una o más lenguas extranjeras, lo cual facilita la comunicación entre sí (Ruiz Bikandi, 2012).

El éxito de la escuela plurilingüe depende en gran medida de la aceptación de las lenguas de las otras y la curiosidad que suscitan esos idiomas y culturas, actitud que asegura la pervivencia de las lenguas minoritarias y la apertura a esas culturas y modos de pensar. Una política educativa adecuada debe impulsar tanto la enseñanza de las lenguas oficiales como la de las extranjeras, y valorarlas todas por igual.

Es evidente, por tanto, la necesidad de que en los centros educativos se tomen medidas que faciliten no solo la enseñanza de varias lenguas sino también la enseñanza en diferentes lenguas. Todas las lenguas curriculares deben compartir el mismo objetivo, es decir, conseguir el desarrollo comunicativo; así como su utilización para adquirir nuevos aprendizajes. Por lo tanto, los centros escolares deben ofrecer un aprendizaje en lenguas, no solo el aprendizaje de éstas.

El Consejo de Europa define la competencia plurilingüe y pluricultural como la habilidad *“para usar lenguas para la comunicación y para tomar parte en acciones interculturales, en las que la persona actúa como agente social y tiene una competencia variable en distintas lenguas y experiencia de varias culturas<sup>5</sup>”*. (CEFR, 2001). El propósito de la educación plurilingüe es el desarrollo de las destrezas y de los repertorios lingüísticos en distintas lenguas. El plurilingüismo se consolida a lo largo de la vida y las personas incorporan nuevas lenguas guiadas por distintas necesidades y propósitos.

El plurilingüismo es una capacidad que poseen todas las personas. Una de las obligaciones de los sistemas educativos es hacer conscientes a las familias y a los alumnos/as de su capacidad potencial para aprender a utilizar lenguas y articular oportunidades eficaces para ello. La *“Guía para formular políticas lingüísticas en educación”* del Consejo de Europa presenta las siguientes convicciones:

- Todos los y las hablantes son plurilingües potenciales, poseen capacidad para adquirir otras lenguas o variedades lingüísticas en diferentes grados de desarrollo.
- La competencia plurilingüe no exige necesariamente desarrollar una competencia similar en las distintas lenguas. Los hablantes bilingües, trilingües o multilingües equilibrados no son habituales; lo más frecuente es poseer un repertorio lingüístico con grados de dominio diferentes. Los sistemas educativos tienen que proponer estándares realistas y olvidarse de la aspiración de la competencia *“como hablante nativo ideal”*.
- La competencia plurilingüe, según el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas *“no es la superposición o yuxtaposición de distintas competencias, sino una competencia compleja”* es por tanto, una competencia transversal que se extiende a todas las lenguas que se aprenden.
- El plurilingüismo aporta un componente intercultural al poner en contacto al aprendizaje con las culturas en las que se han desarrollado las diferentes lenguas.

---

<sup>5</sup> In an intercultural approach, it is a central objective of language education to promote the favourable development of the learner's whole personality and sense of identity in response to the enriching experience of otherness in language and culture.

Además, en las actuaciones experimentales se extrapolan las siguientes ventajas ya constatadas en la educación bilingüe o en las diversas experiencias de inmersión:

- Se recibe una exposición adicional a la lengua extranjera cuya importancia como input ajustado y comprensible está comprobada (Krashner, 1981).
- La competencia en comunicación lingüística se entiende de modo global. El uso de la lengua como instrumento para el aprendizaje desarrolla aspectos de competencia no contemplados en el uso de la lengua como objeto de aprendizaje (Canale y Swan, 1980; Bachman, 1990; Cummins, 1999; Vollmer, 2006).
- El bilingüismo y el plurilingüismo incrementan la conciencia metalingüística del hablante y contribuyen a facilitar el análisis sobre el funcionamiento y el uso de las lenguas (Baker 1993; Cenoz y Genesee, 1998; Huifesen, 2000; Cenoz y Jessner, 2000).
- El plurilingüismo, en las debidas circunstancias de aprendizaje y uso de las lenguas, se convierte en un potenciador de la capacidad cognitiva (Cummins, 2001; Vollmer, 2006).
- La competencia común subyacente favorece la incorporación de repertorios lingüísticos variados y la transferencia de aprendizajes entre las lenguas que conoce el hablante (Cummins, 1998).
- El incremento de actitudes positivas y motivación hacia las tareas de aprendizaje (Baker, 1993; Dörnyei, 2004).
- El desarrollo de estrategias de aprendizaje (Oxford, 1990; Chamot, 1998).

De acuerdo con el documento de la Comisión Europea (1995) sobre educación denominado *“El libro blanco. Enseñanza y aprendizaje. Hacia una sociedad del aprendizaje”*, el objetivo básico de la enseñanza de las lenguas es garantizar el dominio básico de tres idiomas comunitarios: lengua materna más dos adicionales (LM + 2). Para cumplir este objetivo prioritario, la enseñanza de las distintas áreas o materias curriculares debe desarrollarse a través de las diferentes lenguas de la escuela. De esta manera, se impulsa el plurilingüismo que, así mismo, contribuye al logro de los siguientes objetivos:

- Potenciar el conocimiento de varias lenguas y asentar su uso vehicular por su gran eficacia en el aprendizaje de las mismas.
- Desarrollar propuestas didácticas integradoras y globales, que superen la fragmentación curricular y el tratamiento desconectado de las mismas materias lingüísticas y del resto de materias del currículo.
- Potenciar la autonomía de los centros escolares para que, a partir de la interpretación de la realidad lingüística y sociocultural de su contexto, planteen propuestas ambiciosas y dinámicas para satisfacer las necesidades de aprendizaje de su alumnado.
- Implicar a todo el profesorado para que se responsabilice del desarrollo de la competencia en comunicación lingüística del alumnado.
- Incrementar la motivación del alumnado hacia el conocimiento de las lenguas como factor clave en el desarrollo de la competencia en comunicación lingüística.

La Unión Europea apuesta por una sociedad plurilingüe tal y como lo demuestra la Comisión Europea (2005a: 2) *“la diversidad es lo que une a la Unión Europea; no es el lugar donde las distintas lenguas se funden, sino el lugar donde se celebra y expresa esta diversidad, ya que las lenguas son la fuente de riqueza y aquellas mediante las cuales nos entendemos mutuamente”<sup>6</sup>*.

Según el Consejo Europeo (2005a: 3), el plurilingüismo ayuda a completar los beneficios adquiridos: a nivel personal, desarrolla las competencias cognitivas, así como la competencia en la primera lengua<sup>7</sup>. El objetivo principal del Consejo Europeo es difundir el plurilingüismo; para ello, se han impulsado diferentes herramientas para certificar la educación plurilingüe, tanto como el conocimiento de diferentes lenguas. Este es el caso de: European Centre for Modern Languages y el European Language Portfolio (ELP), donde se recoge toda la experiencia del aprendizaje.

---

<sup>6</sup> “It is this diversity that makes the European Union what it is: not a “melting pot” in which differences are rendered down, but a common home in which diversity is celebrated, and where our many mother tongues are a source of wealth and a bridge to greater solidarity and mutual understanding”.

<sup>7</sup> “Multilingualism has advantages in many different ways. At the individual level, it can improve individual cognitive skills and develop the first language skills”.

Para lograr todo esto, en las primeras décadas del siglo XXI, el trabajo formativo en la escuela se debe adecuar a los diferentes contextos que se plantean, actualizando su planteamiento y así responder con eficacia los grandes cambios que están sucediendo. Entre estos cambios, se encuentran los procesos que tienen relación con el aprendizaje de las lenguas, tanto en la Unión Europea como en la escuela y su proyecto educativo. Por un lado, los y las futuras alumnas deberán estar preparadas para dar respuesta a una sociedad globalizada y plurilingüe, que en nuestro caso, debe partir desde una base educativa euskaldunizadora.

Por otra parte, para proporcionar una mejor respuesta a esta sociedad, la educación deberá basarse en la adquisición de competencias. Siguiendo este modelo, la Lengua se convierte en la base del proceso, ya que “Aprender a comunicarse” no solo influye en el uso y manejo de una lengua, sino en el proceso por el cual se adquieren y aprenden todas las competencias educativas.

Por lo tanto, para dar respuesta a esta sociedad globalizada y del conocimiento, la implantación de un modelo educativo que desarrolle con efectividad a la persona en todas sus dimensiones, tanto individual como colectivamente, es imprescindible. El objetivo de dicha educación, es impulsar la participación activa en la sociedad a medida que trabaja las competencias para poder desenvolverse en ésta.

Es decir, educar personas competentes capaces de desenvolverse en contextos y situaciones diferentes será su principal objetivo; a la vez que la escuela trabaja en el desarrollo de sus capacidades.

A través de la educación por competencias, la importancia de las lenguas se hace más presente dentro del contexto educativo, ya que mediante la lengua, todas áreas del desarrollo personal son ligadas. Así pues, la educación deberá obedecer y trabajar las necesidades lingüísticas que se produzcan en el ámbito personal, académico y profesional.

Dentro de la educación por competencias, el objetivo de la enseñanza-aprendizaje de las lenguas será el siguiente: desarrollar la competencia comunicativa del alumnado, para su uso en diferentes ámbitos y situaciones (Garagorri, 2004).

Por todo ello, la enseñanza-aprendizaje de las lenguas se equipara y extiende por igual a todas las áreas de centro (dentro y fuera del aula, en comunidad...); para así poder

desarrollar la competencia comunicativa de la manera más global y efectiva posible. Dicho de otro modo, dar respuesta a las situaciones comunicativas diversas en todos sus contextos para proporcionar registros y herramientas para su correcto uso.

Siendo este el desafío principal de la escuela, ésta tiene la necesidad de identificar y marcar el camino hacia la integración de su enseñanza-aprendizaje. Todo esto conlleva actualizar la metodología educativa e incrementar la perspectiva lingüística fuera del aula, para así colmar de herramientas y estrategias la competencia lingüística del alumnado.

Todo esto remarca la importancia de llevar a cabo un Proyecto Lingüístico.

De esta manera el reto de la escuela vasca es impulsar el uso del euskera y su cultura, a la vez que introduce el mismo tratamiento integrado de otras dos o tres lenguas; para poder hacer frente la diversidad cultural y lingüística que exista tanto en el centro como fuera de él.

Para ello, la escuela debe replantear su marco educativo para transformar su realidad y sus ámbitos comunicativos, y así, implicar a todas las partes del centro en la acción comunicativa. Así, el marco educativo deberá responder las necesidades de las siguientes tres situaciones:

- Teniendo en cuenta la situación sociolingüística y los objetivos lingüísticos, la escuela tendrá que llevar a cabo un planteamiento que acoja la enseñanza de las lenguas, y a su vez, asegurar su coherencia en los procesos de enseñanza-aprendizaje. Para ello, la función y espacio de cada lengua deberá ser especificada dentro del centro, así como las horas lectivas y su metodología.
- Al identificar las diversas situaciones comunicativas (tanto pedagógicas como institucionales) y sus respectivas características, así como la participación de la comunidad educativa, se definirán las estrategias para el desarrollo de estas situaciones.
- Desempeñar relaciones próximas y eficaces dentro de la sociedad, para crear una planificación coherente y sistemática transferible a la realidad del centro educativo.

Por tanto, el Proyecto Lingüístico de la escuela conformará el ancho y diverso marco educativo. Siendo una herramienta de trabajo integral, afectará a todo el contexto comunicativo de la escuela; es decir, el Proyecto Lingüístico será la propuesta que recoja la enseñanza-aprendizaje de las lenguas y su uso en los diferentes ámbitos, dando coherencia y eficacia al programa educativo personalizado del centro.





## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1. Marko Normatiboa

Proiektu edo unitate eleanitza aurrera eramateko, indarrean dagoen LOE (2006/2) hezkuntza legea aintzat hartzea ezinbestekoa da. Era berean, LOMCE legearen aurreproiektuan hezkuntza eleanitzaren inguruan esposatutakoa zein Nafarroako Hezkuntzarako Foru Dekretuan (69/2010) ere agertzen dena kontutan hartu behar dela.

#### 2.1.1. LOE

LOE (2006/2) legeak, ekitatea eta kalitatezko hezkuntza bermatzea du helburu nagusi. Izan ere, eleaniztasunaren inguruan ez du informazio gehiagorik ematen, baina ikasleek dituzten gaitasunen, interesen, etorkizunerako aukeren eta premien aniztasunera, eta ikasleengan eta gizartean gertatzen diren aldaketetara egokitzeko malgutasuna eskaintzen duen heinean, eleaniztasunaren gauzatzea ahalbidetzen du.

*5.artikulua: Bizitza osoko ikaskuntza.*

*“Herritar guztiek izan behar dute hezkuntza-sistemaren barruan eta kanpoan bizitza osoan prestatzeko aukera, garapen pertsonalerako eta profesionalerako ahalmenak, jakintzak, trebetasunak eta gaitasunak eskuratu, eguneratu, osatu eta zabaldu ditzaten”.*

Etengabeko hezkuntzarako bidea ematea hezkuntza sistemaren oinarrizko printzipioetako bat denez, gizartearen eskakizunen menpe dago. Hau da, gaur egun hizkuntzen ikaskuntza sustatzen dituzten proiektuak aurrera eramateko abagune ematen du.

*6.artikulua: Curriculuma.*

*“Irakaskuntza bakoitzaren helburuen, oinarrizko gaitasunen, edukien, metodo pedagogikoen eta ebaluazio-irizpideen multzoa hartzen da curriculumtzat”.*

*“Oinarrizko irakaskuntzen oinarrizko edukiek eskola-ordutegien ehuneko 55 beteko dute hizkuntza koofiziala duten autonomia-erkidegoetan, eta ehuneko 65 hizkuntza koofizialik ez dutenetan”.*

*17. artikulua. Lehen hezkuntzaren helburuak.*

Hizkuntzen ikaskuntzaren inguruan, zera dio LOEk:

*“e) Gaztelania eta autonomia-erkidegoko hizkuntza koofiziala (baldin badago) behar bezala ezagutzea eta erabiltzea, eta irakurtzeko ohiturak garatzea.”*

*“f) Gutxienez atzerriko hizkuntza batean mezu sinpleak adierazteko eta ulertzeko eta eguneroko egoeretan moldatzeko oinarrizko komunikazio-gaitasuna eskuratzea.”*

*102.artikulua. Etengabeko prestakuntza*

*“Hezkuntza-administrazioek, bestalde, irakasle guztiek (beren espezialitatea edozein izanik ere) informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea eta atzerriko hizkuntzetan prestatzea sustatuko dute, eta berariazko prestakuntza-programak ezarriko dituzte eremu horretan. Halaber, ikerketako eta berrikuntzako programak sustatuko dituzte.”*

### *2.1.2. LOMCE*

LOMCE legeak zehaztasunak atxikitzen ditu LOE legean, hainbat aspektu berri txertatuz. Honako tratuera hartzen du Hezkuntza Eleanitzak:

*“6) Eleaniztasunari laguntzan, esfortzua emendatu egin behar da ikasleak lehenengo atzerriko hizkuntza batean jarotasunez moldatzeko, ahozko zein idatz espresioen lanketa sustatuz baita anbizio laboralak aztertuz ere.”*

*2.artikulua*

*“3) Espainiako Hezkuntza Sistemaren funtzionamendua kalitatean, kooperazioan, ekitatean, aukera berdintasunean, baliabide publikoen esleitzearen eraginkortasunean, gardentasunean eta kontuak ematean oinarritzen da.”*

*6.artikulua*

*“2) Oinarrizko irakaskuntzen oinarrizko edukiek, eskola-ordutegien ehuneko 65a beteko dute hizkuntza koofiziala duten autonomia-erkidegoetan, eta ehuneko 75 hizkuntza koofizialik ez dutenetan”.*

*18.artikulua*

Hezkuntza Eleanitzerako Oinarriak: *“Hezkuntza Eleanitza Haur Hezkuntzako 2.ziklotik Batxilergora arte zabalduko da”.*

### *2.1.3. Nafarroako Hezkuntzarako Foru Dekretua*

*69/2010 EBAZPENA, otsailaren 19koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako programa eleaniztunak emateko oinarriak ezartzen dituena, 2010-11 ikasturterako.*

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak hitzaurrean adierazten duenez, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan atzerriko hizkuntza bat ikasten hasiko da; 17 f) artikuluan adierazten denez, ikasleek gutxienez atzerriko hizkuntza batean oinarriko komunikazio-gaitasuna eskuratu beharko dute. Lege horren garapen eta aplikazioa Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzarako curriculumak ezartzen duen martxoaren 19ko 23/2007 Foru Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian eta Lehen Hezkuntzako irakaskuntzarako curriculumak ezartzen duen martxoaren 19ko 24/2007 Foru Dekretuaren bigarren eta hirugarren xedapen gehigarrietan egiten da. Xedapen horietan arautu egiten dira atzerriko hizkuntzen ikaskuntza, hizkuntzen tratamendu integratua eta curriculumeko arloen zati bat atzerriko hizkuntzan emateko aukera.

Hezkuntza Departamentuaren iritziz hezkuntza alderdian eta alderdi estrategikoan interesgarria da sistema publikoan hainbat hizkuntzaren ikaskuntzan oinarritzen diren programak eskaintzea, horien eskaria handia delako eta ikaskuntzan -ez soilik hizkuntzen ikaskuntzan- oso eragingarriak direlako. Programa horiek, orokorrean, programa eleanitzak deitzen dira, sarritan bi hizkuntza edo gehiago konbinatzen dituztelako. Horietako bat da British Councilen eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren arteko hitzarmenari atxikitako ikastetxeetan egiten den esperientzia elebiduna.

Hezkuntza Departamentuaren programa eleaniztunak indarra duen curriculumak garatzen dute, bi hizkuntzaren edo gehiagoren irakaskuntza koordinatuz eta honi erantsitako oinarrietan ageri diren printzipio metodologikoei eta irizpideei jarraikiz. Programa horiek, funtsean, hizkuntzetakoak ez diren arloetako curriculum-edukiak atzerriko hizkuntzaren garatzean datza, hizkuntzaren eta edukiaren irakaskuntza (CLIL) integratuz, eta halaber, curriculumeko hizkuntzen tratamendu integratu edo koordinatua (TIL) egitean.

Programa eleaniztunen ezarpena eta garapena nahiz programa horiek ematen dituzten ikastetxeen funtzionamendua bideratzeko, ebazpen honen eranskinean azaltzen diren 2010-2011 ikasturterako oinarriak ezarri behar dira. (ikusi Eranskin I)

## **2.2. Eremu Psikopedagogikoa**

Nafarroako D ereduko hezkuntza sistemak, euskara zein gazteleraren ezagutza bermatzen du, atzerriko hizkuntza baten barneratzea garatzen duen bitartean. Hau da, sistema hirueledun baten aldeko apustua egiten du (H1 + H2) + H3; hizkuntza ikasleriaren testuinguru ezberdinetan komunikaziorako gaitasuna garatzen duelarik, Hizkuntzen Tratamendu Integratuaren murgiltze ikaskuntzaz baliatzen da.

Oriol Guaschek (2006, 22) esaten duen bezala *“hizkuntza ezberdinak ezagutzea erabiltzaileen adimenarekin hertsiki lotuta dago, zeinak planifikatzearen elkarbizitzara eta hizkuntzen irakaskuntza integratura eramaten gaituen<sup>8</sup>”*.

### *2.2.1. Hizkuntzaren Antzematea*

Hizkuntzaren alde funtzionalak zein normatiboak aztertzen dituzten diziplinen aurrerapausoei esker, derrigorrezko hezkuntzak hizkuntzen tratamendu integratuari aurre egin diezaioke; hizkuntza kurrikularren tratamendu integratuaren bidez, komunikatzeko eta adierazteko erreminta gisa erabiliko baitira. Hona hemen hizkuntza arakatzeko dituen zientzien teoriak:

Psikolinguistikak, hizkuntza guztiak elkarrekintzaren bidez eskuratzen direla dio. Esanahien negoziazio prozesua ematen da eta antzemateko nahiz ikasteko estrategien erabilpenaz baliatuz, hiztunak ulermenerako zein adierazpenerako strategi eta prozedura bertsuak beste hizkuntzetan erabiliko ditu.

Psikolinguistikari jarraituz, Cumminsek (1983) pertsona eleaniztunen “azpiko kompetentzi komunen” existentzia formulatzen du. Hau da, hizkuntzetarako hizkuntza-gaitasuna elkarrekintzan eta elkarreraginean gertatzen direla sistema kognitiboan, sistema operatibo zentratean. Hau horrela izanik, hizkuntzen tratamendu integratuaren oinarriak finkatzen dira.

---

<sup>8</sup>“ El hecho de que el conocimiento de las distintas lenguas esté estrechamente relacionado en la mente de los usuarios conduce a pensar en la convivencia de planificar y llevar a cabo la enseñanza de estas lenguas de una manera integrada”.

Soziolinguistikak hizkuntza produktu sozialtzat hartzen du. Kontaktuan dauden hizkuntzen erlazioak aztertzeaz gain, hiztunen hizkuntzarekiko jarrera ere ikertzen du; aniztasun soziala, geografiko, kulturala zein testuingurukoa antzekoa izanik hizkuntza ezberdinetan. Ikuspuntu honek irakaskuntza eleanitzak aberasten du, hausnarketa eremu partekatua erakustez ez ezik, hizkuntzen aurreko jarreraren lan proposamenak eta hizkuntzaren ikaskuntza gauzatzeko hizkuntza-gaitasuna aberasten baitu (Hymes, 1995).

Amaitzeko, testuaren hizkuntzalaritzak hizkuntzaren unitateen (hitza zein esaldien) analisia ahalbidetzen du. Testua komunikaziorako ezinbesteko unitatetzat hartuz, genero diskurtsiboen eta testu mota ezberdinen karakterizazioa ahalbideratzen du, testuen kohesiorako baita antolaketa egituratzeko ere.

Era berean, hizkuntza nola eskuratzen den azertu beharra dago; izan ere, hizkuntza baten ikaskuntzan aurrera eramandako estrategiak eta formulak behatu behar direlarik. Hizkuntza-gaitasuna eskuratzean, oinarrizko bi printzipio hauek daude: ulermena eta adierazpena. Bi baldintza horiez gain, egoki gertatzen badira, uste izatekoa da haurrak pixkana-pixkanaka hizkuntza sistema menderatzen eta erabiltzen joanen direla eta, finean, murgiltze programak erritmo egokiaz aurrera egingen duela.

#### *2.2.1.1. Ulermena (INPUT)*

Hizkuntza eskuratzeko, lau dimentsio garatzen dira, hizkuntza testuinguru ezberdinetan ulertzea ahalbidetzen duena. Hizkuntza bat ulertzeak berarekin dakar irakasleek estrategia sorta bereganatzea. Horietako lehena, testuinguruaren euskarria da; hots, irakasleek lengoaia laguntzeko erabiltzen duten hitzezko jokabide osoa: keinuak, gorputz mugimenduak, aurpegi itxurak... Horiez gainera, zentzumen laguntzak badira (ikasgelan erabiltzen diren materialak, laminak, objektuak...). Bigarren dimentsioa diskurtsoen estrategien alorra da. Irakasleek estrategia horiek erabiltzen dituzte haurrek hizkuntzaren prozesua azkartzeko. Hiru estrategia mota bereizten dira: errepikatzea, birziklatzea eta parafraseatzea.

- *Errepikatzea*, gauza bera behin baino gehiagotan eta hainbat testuingurutan esatea da.
- *Birziklatzea*, egitura berberak hainbat jardueratan erabiltzea da. Adibidez, oinarrizko kontzeptuak -esate baterako, koloreak- elementuen edo

